

MANUEL CHIAPUSO

Beti mugan zen anarkista

Manuel Chiapuso donostiar cenetistaren heriotzaren hamaseigarren urteurrenean, bere bizitzako hamaika xehetasun berreskuratu eta bere ibilbide libertario zabala errebasatu dugu senitartekoen bidez.

| AITOR AZURKI |

“AZALPEN LUZEENGAN –falsuturikoak edo hurrengo belaunaldiek gaingiturikoak– interesa jarri eta historia txikiari trufa egiten dioten teoria modernoak badiren arren, historia txikiak handian esku hartzen du etengabe, eta, askotan, baita zehaztu ere”. Fred Bérence idazlearen hitzok Manuel Chiapuso iraultzaileak jaso eta *Los anarquistas y la guerra en Euskadi* liburuaren hasieran ipini zituen. Bere bizitzaren epitafio bailitzan, erreportaje hau ezin hobeki deskribatzen duten hitzak dira; memoria historikoaren esparruan gabiltzanontzat gure eginkizuna primeran laburbiltzen duten berbak ditugu.

Historia txikitik gogor eragin dute Manuel Chiapusoren lanek, eta garaiko gizartea astindu zuten bere hitzaldiek. Azken horietako batetik Miarritzera bueltan zihoala, istripu bat izan eta Gurutzetako ospitalean (Bizkaia) zendu zen egun gutxira, 1997ko azaroaren 29an, hain zuzen ere. Askatasunaren aldeko borroka luzea, bere ideia eta gertakarien hamar bat liburu eta makina bat artikulua utzi dizkigu.

“Oso gizon sentikorra zen, hezia, intelektualki gaitasun handikoa, mintzatzaile eta hizlari fina. Bere planteamendu ideologikoetan ere oso erradikala zen: beti mugitu izan zen legaltasun eta ilegaltasunaren mugetan... Benetan harritzen



70eko hamarkadan berriz heldu zion Chiapusok militantzia aktiboari. Goian, 1979ko irudia.

ninduen! Nire familia politikoa izan da, baina Manuel beti haratago zihoan. Oso gozoa zen hizketan, baina beti ertzean zegoen; abangoardia izan zen hil zen arte”, dio Norka Chiapuso (Donostia, 1963) ilobak, egun Donostia Kulturako antzerki-programatzailea dugunak. “Pertsona bikaina zen: kritikoa, baina adeitsua, maitekorra, sentimental, intelektuala... Esaten dizudan guztia gutxi da”, gaineratu digu Lucía Cantabranak (Donostia, 1940), Manuel Chiapusoren lehen-gusuaren emazte eta Norkaren amak.

70eko hamarkada: itzulera iraultzailea

Frankismo garaian Parisen bizi izandako hamarkadetan, jarduera iraultzaile lausoa izan zuen. Baina 1972 edo 1973an berriz heldu zion borrokari eta klandestinoki muga pasatzen hasi zen anaia Ignaciorekin, Gipuzkoa eta Arabako adiskide anarkistei lagundu asmoz. Hasiera batean, bidaia horiek euren senitartekoei bisitak egiteko probestu zituzten.

“Beti Eguberri egunean etortzen ziren bera eta Ignacio anaia, eta kafea eta xanpaina edaten zuten. Solasaldia oso aberasgarria izaten zen, beti euren gaiez: anarkismoa, politika, iraganean igarotakoa... Udan ere bi anaia gau askotan izan genituen gure artean, eta, Gabiriara joan ohi ginen”, azaldu du Cantabranak.

Casilda Hernández, *Casilda miliziana* anarkista eurekin azaltzen zen frankotan. Casilda eta haren senar Felix Likiniano anarkista historikoa Manuelekin bizi izan ziren Miarritzeko etxe berean: “Likiniano hil zenetik, Casilda askotan etortzen zen Chiapuso anaiekin –azaldu du Lucía–. Aragoiko Agustina zirudien, oso borrokalaria, beti txapela buruan zuela, garai hartarako oso gizonezko itxuran”.

Martinez, Armada Errepublikarreko Hegazkinariako kapitain izandakoa ere haiekin joaten zitzairen bisitan. *Taxista* deitzen zioten. “Joe,

zer mugitua zen hura ere bai!
Manuelek biziki maite zuen!
Lagun minak ziren”.

Italiar jatorrikoa

Manuel Chiapusoren aitona Italiatik Donostiara etorri zen Norteko trenbidea egitera eta Aieteko emakume batekin ezkondu zen. Zenbait arrazoi-rengatik abizena eraldatu zuen ‘s’ bat kenduta, eta, hala mantendu dute orain urtebetera arte: “Seme-alabekin eta arrebarekin batera aldatu dut nik, benetako abizena erreuperatuz. Orain jatorrizkoa irakurritu ulertzen da nondik gatozen”, argudiatu du Chiapusok.

1912ko apirilaren 14an, Espainiako Errepublika egunean jaioa, gurasoak Parisen erbesteraturik, Chiapuso gaztea Zubietako haranean hazi zen, Urnietako baserri batean, euskaraz. 13 urterekin seminariora joateko aukera baztertu eta lanean hasi zen. Antzerki-zale-tuen talde bat eratu zuen garai hartan. 19 urterekin CNT sindikatuan afiliatu eta Gipuzkoako

“Anarkistak eta internazionalistak izan arren, Euskadi bihotzean zuten, min ematen zien”

Norka Chiapusso, Manuel Chiapusoren iloba

Gazte Libertarioak sortu zuen; bertako aurreneko idazkaria izan zen.

Emakume batekin harremana hasi eta semea izan zuten elkarrekin, baina “erlazioa ez zen aurrera joan”, dio Chiapusok. Ondoren, abizena ezezaguna zaigun Maria anarkista aragoarra izan zuen bikotekide hil arte.

Bizitza osoa borrokan

30eko hamarkadan langile mugimenduen manifestazio eta deialdietan parte hartu zuen Manue-

lek, eta zenbait kartzela ezagutu zituen, besteak beste, Ondarreta, Alcalá, Ocaña eta San Miguel de los Reyes. 1936an gerra lehertu zenean, lehen lerroan izan zen Donostiako defentsa antolatzen, baita Loiolako kuartela erasotzen ere. Beste hainbat ekintzetan ere parte hartu zuen hilabete erabakigarri horietan: Aian, San Martzialen, Irunen eta Puntzan. Gipuzkoako Defentsa Batzordeko Lan-Ataleko presidenteorde izendatu zuten eta Donostiako CNTko presidente ere bai.

1936ko irailaren 13an, frankistek Gipuzkoako hiriburua eskuratu zutenean, Manuelek Durangora ospa egin zuen zaurituta. Handik Bilbora. Bertan propaganda arduradun aritu zen, lan eskerga eginez: *Horizontes* aldizkaria eta *CNT del Norte* egunkaria sortu zituen. Agirre lehendakariaren gobernuan CNT sartzea zen bere asmoa –berarekin batzartu zen 1937ko maiatzean-, baina, azkenean, ezin izan zuen erdietsi.

Bizkaia frankisten esku erori zenean, Bartzelonara jo zuen Chiapusok, eta, han, besteak beste, Lan Ministerioko delegatu anarkista gisa jardun zuen. Katalunia ere erortzeaz zela, Frantziara ihes egin eta hainbat kontzentrazio esparrutan egon zen. Ondoren Erresistentziarekin batu zen, harik eta 1944an Miarritzen etxebizitza erosi zuen arte. “Bertan antifrankista eta ezkertiarrentzat beti zegoen lekua. Bazkariak-eta egiten zituzten Casildarekin batera. Eskuzabalak ziren oso”, gogoratu dute senitartekoek.

Naziek alde egin zutenean CNT berrantolatzen aritu zen, erbesteratuei laguntzen, Euskal Kontseilu Kontsultiboko kide izan zen... Hala pasa zituen zenbait urte, azkenean Pariseko kanpoaldeko baserri batera joan arte. “Abereiz inguraturik bizi ziren; oso sentimentalak ziren”, azpimarratu du Cantabranak. Sorbonnen ikasi zuen 1949an eta hizkuntza eta literatura irakasle aritu zen.

VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

GOZATU EUSKARAZ

liburutegietan!

Sarrera: 1€

ALDABE

3,2 ZAST... egizu jolas!
Bertxontxogiloak (antzerkia)
Abenduak 3, 18:00, 3-8 urte

LAKUA

Jolas-kantak. Kantari-on
Abenduak 14, 12:00
2-4 urte, heldu batekin

PILAR

Iji, aja, aitona Martzelonen galtzak
Iñaki Carretero (ipuin kontalaria)
Abenduak 10, 18:00
12-36 hilabete, heldu batekin

BUTAKA TXIKIA

> Beñat Etxepare antzokia

Munduari itzulia

Gorakada

Abenduak 26, 18:00

> Arriagako gizarte etxea

KUBIK

Teatro Paraíso

Abenduak 27, 18:00

GABONETAKO PROGRAMAZIOA

> Olentzeroren ametsa

Abenduak 23, 19:00

Mendizorrotzeko kiroldegia, 4 €

> Kanpanolue, berbena bat baino gehiago

Urtarrilak 3, 19:00

Mendizorrotzeko kiroldegia, 4 €

> Olentzeroren postontzia

Abenduaren 16tik 23ra

Goiuri jauregia

Astelehenetik ostiralera:

10:00 - 21:00

Larunbatean eta igandean:

11:00-14:00 eta 16:00-21:00

> Olentzeroren desfilea

Abenduak 24, 18:00

PRINCIPAL ANTZOKIA

> Klasikat

Ken Zazpi+Euskadiko Orkestra

Abenduak 12, 20:00

> Heritmo

Oreka Tx, Kalakan,

Kukai dantza konpainia eta Herri Kirolak

Abenduak 18, 20:30

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

ZAHAR-BERRI ARTEAN GAUDE gala

Abenduaren 3a

Principal antzokia, 20:30

Gonbidapenak, azaroaren 26tik

Principal antzokiko leihatilan

18:30-20:30

Maite duzun hura, euskaraz!




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

CHIAPUSOREN SENIDEK UTZIA



CHIAPUSOREN SENIDEK UTZIA



Ezker-eskuin: 1995eko udan Miarritzen ateratako argazkia, Chiapusoren senideek duten azkenetakoa; Donostiako pasealeku batean herritar batzuek egindako ekintza bere oroimena aldarrikatzeko; *Los anarquistas y la guerra en Euzkadi. La comuna de San Sebastián* liburuaren azala, 1977an Txertoak argitaratua, geroztik hainbat berrargitalpen izan du.

Anaia desagertuaren agerpena

Jose txo Chiapuso anaia urpeko minak desaktibatzen igaro zuen gerratea. Baina behin itsasoan leherketa bat izan zen eta desagertu egin zen. Nolanahi ere, ez Manuelek ezta Ignaciok ere, ez zuten sekula uste izan anaia hil zenik, konbentziturik zeuden ez zegoela han leherketa gertatu zenean. “Urteak eman zituzten anaiaren bila, Ignacio Errusiaraino ere joan zen”, esplikatu digu ilobak.

“Ez zuten topatu eta jada Ignacio hilda, berrogei urteren ondoren, 80ko hamarkadako egun batez, Donostiako Udaletik Mari Pepa Sanz prentsa-arduradunaren telefono deia jaso zuen Cantabranak: “Kaixo, Jose Chiapuso delako bat ezagutzen al duzue?”. Eta nik beti bere izena entzun dudanez, baietz esan nuen. ‘Paris eta Euskadiren artean dago,

Frantziako hegoaldeko herriren batean’, izan zen erantzuna”.

Manuel korrika batean joan zen anaia desagertuarengana, baina jada burua erabat galdurik zuen Jose txok; soilik bere aita eta Donostia zituen gogoan. “Ospitale psikiatriko batean zegoen. Jaiotze-daturen bat behar zutenez, Donostiako Chiapuso guztiei deika topatu gintuzten. Manuel etengabe joan zen anaia bisitatzen —pena handia eman zion Ignacio hura ikusi gabe hil izana—. Sei hilabeteren buruan Jose txo hil zen eta ez zuten inoiz jakin bere nondik-norakoez...”.

Hitzaldiz hitzaldi heriotzera arte

“Euskadik min ematen zien, Euskadi bizi zuten. Anarkistak eta internazionalistak izan arren, Euskadi bihotzean zuten, erreferente hori ez zuten galdu”, dio Chiapussok.

Azken urteetan makina bat hitzaldi eta ekitaldi politikotan esku hartu zuen Euskal Herrian Manuelek, bere adiskide Martinez “taxista” zuela.

1997an hil zenean Derioko hilerrian erraustu zuten, 20 edo 25 anarkistek lagunduta. Bertan izan zen Norka Chiapuso, bere aita zenarekin: “Hunkigarria izan zen. Anarkismoaren inguruko jendea bildu zen, gazteagoak denak, ekitaldi xume baina ederra izan zen”.

Manuel Chiapuso eta Donostiako solasaldi horietan izaten ziren anarkista zaharrak —Ignacio, Martinez eta Casilda bera— primeran deskribatzen dituzte Lucía Catanbranaren hitzok: “Idealistak ziren, helburu politiko argiak zituzten. Euren bai eramaten zituztela beren ideiak azkeneraino!”. ■



BAGGA

MUSIKA MAITE DUGULAKO

ALEX SARDUI

MANAGEMENT: (+34) 618 072 076

bagga-bagga musika ideiak
tel: 618 072 076 / 026
www.bagga-bagga.com / info@bagga-bagga.com

KORONTZI

JEXUMAI LOPETEGI

ZAIN

KORONTZI

JEXUMAI LOPETEGI

ZAIN

GOVERNORS

KAUTA

TYAPELPUNK

HERRI OIHUA

OINKARI & HIKA

URTZ

ZARAMA

EMON

KAOTIKO

ZARAMA

EMON

KAOTIKO